

## Elena Copons sopranoak eta Rubén Fdez. Aguirre piano joleak konposatzaile frantsesei eskainitako zikloari amaiera emango diote astelehenean

- Arriagako Ziklo Frantseseko laugarren eta azken errezitaldia astelehenean izango da, maiatzaren 21ean, arratsaldeko 20:00etan, Reynaldo Hahn de Echenaguciaren, Henri Duparcen eta Felip Pedrellen musikari eskainita.
- Sandra Fernández Aguirre antzezleak errezitatzailearen papera jokatu du ikuskizunean.

**Bilbon, 2018ko maiatzaren 18an.**- Arriaga Antzokiak musika frantsesari eskainitako zikloari amaiera emango dio datorren astelehenean, maiatzaren 21ean, 20:00etatik aurrera, **Elena Copons** sopranoak eta **Rubén Fdez. Aguirre** piano joleak eskainiko duten emanaldiarekin. Errezitaldiak, "Ziklo Frantsesa" osatu duten lauen artetik azkenak, XIX. mendeko hiru konposatzaile azpimarragarri ekarriko ditu gogora: **Reynaldo Hahn de Echenagucia**, **Henri Duparc** eta **Felip Pedrell**. Bere ekarpena ere egingo dio **Sandra Fernández Aguirre** antzezleak ikuskizunari, errezitatzailearen paperean.

**Reynaldo Hahn de Echenagucia** (Caracas, Venezuela, 1874) frantses, venezolar eta alemaniar konpositorea, abeslaria, piano-jotzailea, orkestra-zuzendaria eta kritikari musikala izan zen. Oso txikia zela Frantzia kokatu zen, baina, alemaniar nazionalitatea ere bazuen. Marcel Prousten maitalea izan zen bi urtez baina haien arteko adiskidetasunak azken hori hil arte iraungo zuen. Frantziako tradizio klasikoari eutsitako abestiak idatzi zituen, fin de siècle ukituarekin; hala nola, *Si mes vers avaient des ailes*, *À Chloris* (barroko-estilokoa, Johann Sebastian Bach-en omenez) eta *Quand la nuit n'est pas étoilée* (Victor Hugoren poemaren egokitzapena). Halaber, operak, opereta, ganbera-musika eta orkestra-musika konposatu zituen.

**Henri Duparc**-ek (Paris, 1848) 17 kantu baino ez zituen idatzi, baina bere aberastasun harmonikoak eta testuaren eta musikaren arteko uztardura paregabeak benetako altxor bihurtzen dituzte bere *mélodie* guztiak.

**Felip Pedrell** (Tortosa, 1841) Albéniz, Granados eta Fallaren maisua zenak, berrikuntzari ekin zion musika herrikoia eta musika jantzia bateratuz. Frantziako kulturarekin maiteminduta, Victor Hugo eta Theophile Gautierren testuetan oinarritutako hainbat kantu konposatu zituen.

### Ziklo Frantsesa

Ikuskizuna, Arriaga Antzokiak denboraldi honetan musika frantsesari eskaini zikloko laugarrena da, azkena beraz. Zikloa joan den otsailaren 12an hasi zen, Ainhoa Zuazua sopranoak eta Rubén Fdez. Aguirre piano joleak eman zuten errezitaldiarekin, errezitatzaile gisa aritu zen Olatz Ganboa antzezlearekin. Zikloak hilabete bereko

25ean izan zuen jarraipena, Karmele Larrinaga antzezleak lagunduta aritu zen Antonio Oyarzabal piano jolearen emanaldiarekin. Apirilean, 16an zehazki, Miren Urbieta-Vega sopranoa eta Ainhoa Zubillaga mezzoa aritu ziren Fdez. Aguirrekin batera eta datorren astekoa, astelehena maiatzaren 21ekoa, azken emanaldia izango da. Bertan Elena Coponsek eta Rubén Fdez. Aguirrek berak, Hahn de Echenaguciaren, Duparcen eta Pedrellen musika interpretatuko dute, errezitatzailerik gisa Sandra Fernández Aguirre antzezlea lagun.

#### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 12 eta 15 euro artean
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)